

## Bestelako Xedapenak

### INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

934

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 4koa, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearena; honen bidez, 2009ko ekitaldirako deialdia jendaurrean jartzen da, 2008ko azaroaren 27ko Aginduan ezarritakoari jarraituz laguntzak ematekoa, agindu horrek garatzen baitu produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programa emateko (Gaitek Programa).

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko azaroaren 27ko Aginduak (2008ko abenduaren 23ko EHAA) produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programa emateko Gaitek Programa garatzen du.

Aipatutako aginduaren 13. artikuluan ezarritakoren arabera, egoki da hor iragarritako diru-laguntzak emateko, 2009ko ekitaldirako deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Horrenbestez, aipatutako aginduaren 13. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, honako hau

XEDATU DUT:

#### 1. artikulua.— Xedea.

1.— Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko azaroaren 27ko Aginduak produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programa emateko Gaitek Programa arautu zuen, eta, hain zuzen ere, 2009ko ekitaldirako laguntza horien deialdia egitea, horixe da ebazpen honen xedea.

2.— Helburu hori betetzearren, guztira, 22.200.000,00 euro bideratuko dira horretara 2009ko Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan arlo horretarako izendatutako aurrekontu-kredituari jarraituz.

Deialdi honi lotuta, gehienez jota eta guztira eman go den diru-laguntzen zenbatekoa ez da izango artikuluko honetan finkatutako diru-kopurutik gorakoa, edo, indarrean dagoen legeriari jarraituz, kredituen arteko loturarik edo aurrekontu-aldaketarik badago, lehengo handituta sortutako diru-kopurutik gorakoa. Egoera horietakoren bat gertatuz gero, horren berri jakinaraziko da Teknologiako eta Industria Segurtasuneko sailburuordearen ebazpenaren bidez.

#### 2. artikulua.— Betekizunak.

1.— Eskatzaileek Gaitek Programa arautzen duen aginduan iragarritako laguntzak eskuratu ahal izateko,

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

934

RESOLUCIÓN de 4 de febrero de 2009, del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas para el ejercicio 2009, dentro del marco establecido por la Orden de 27 de noviembre de 2008 por la que se regula el programa de apoyo a la realización de proyectos de desarrollo de nuevos productos. Programa Gaitek.

La Orden de 27 de noviembre de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo (BOPV de 23 de diciembre de 2008) regula el programa de apoyo a la realización de proyectos de desarrollo de nuevos productos. Programa Gaitek.

De conformidad a lo establecido en el artículo 13 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 13 de la Orden de referencia,

DISPONGO:

#### Artículo 1.— Objeto.

1.— Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2009 de las ayudas, previstas en la Orden de 27 de noviembre de 2008 de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, por la que se regula el programa de apoyo a la realización de proyectos de desarrollo de nuevos productos. Programa Gaitek.

2.— A su financiación se destinan 22.200.000,00 euros, con cargo al correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009.

El volumen total de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria, no podrá superar el importe consignado en este artículo o el que resulte, en su caso, de su ampliación, con carácter previo a la resolución del procedimiento, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. De producirse dicha circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial.

#### Artículo 2.— Requisitos.

1.— Para poder acceder a las ayudas objeto de convocatoria deberá acreditarse el cumplimiento de los requi-

aipatutako agindu horretako 7. eta 8. artikuluetan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

2.– Era berean, Gaitek Programa arautzen duen aginduaren 12.3 artikuluan xedatutakoa betetz, laguntzaren ondorio pizgarria bermatzeko, bakar-bakarrik onartuko dira laguntza eskabideak aurkezteko epearen ostean hasten diren proiektuak.

### **3. artikulua.**– Eskabideak eta epea.

1.– Era berean, honako hauetan aurkeztu beharko dituzte eskaerak eta gainerako dokumentazio osagarri guztia: SPRI-Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAN (Urkixo zumarkalea, 36-4. Bizkaia Plaza erakina, Bilbao), bai zuzenean, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako bideren bat erabilita (lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen). Interneteko helbide honetan ere bete daiteke: [www.spri.es/idi/idi/](http://www.spri.es/idi/idi/).

2.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunean hasiko da eta 2009ko ekainaren 2an amaituko da.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Deialdia egiteko ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

**Bigarrena.**– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 4a.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburordea,  
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

sitos establecidos, en relación con los proyectos y beneficiarios, en los artículos 7 y 8 de la Orden que regula el Programa Gaitek.

2.– Asimismo, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12.3 de la Orden que regula este Programa Gaitek, para garantizar el efecto incentivador de la ayuda sólo podrán acogerse a las mismas los proyectos que se inicien con posterioridad a la apertura de la fecha de las solicitudes de ayuda.

### **Artículo 3.**– Solicitudes y plazo.

1.– Las solicitudes y demás documentación complementaria se presentarán en la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI) cuyas dependencias se encuentran en Bilbao, Alameda Urquijo, n.º 36-4.ª planta (Edificio Plaza Bizkaia), bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y además se podrán cumplimentar en la dirección de Internet [www.spri.es/idi/idi/](http://www.spri.es/idi/idi/)

2.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Resolución de convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el día 2 de junio de 2009.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Segunda.**– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de febrero de 2009.

El Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,  
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.